

# Euskaldunen aztarnak eta presentzia Madrilen (II)

XV. mendearen azkenaldetik, orduko agiriak erakusten digutenek, Euskal Herriko hargin eragina handia izan zen Espainia guzian. Garai hortako dugu Joan Arandia arkitekto elgoibartarra, Valladolid-en Santiago eta San Benito el Real eraiki zituen eta berakin batean agertzen da Olaberri bat ere, Kalahorran ibili ziren Olabe baiten familiakoren bat nonbait. Ereñoko Bollar, Albacete-ko Yeste elizaren eraikitzaile zuzendari; Olotzaga Huesca-ko katedralaren proiektu; eta beste izen batzuk Sevilla, Segovia, Salamanca etaabar, garai hartan eraiki ziren monumentuen hargintza maiztuak. Toledo-ko Alcazar-gintzan ere Arandia, Gernika eta Barrena deiturakin aurkituko gara. Cean-Bermúdez eta Viñaza kondeak eman zituzten berrietatik Carmelo Etxegaray osatu zuten lan bat gai-hontza. Eta, neronek ere eman nituen berri horien adierazpenak Gogoz deritzan liburaren 189-192 orrialdeetan.

Pizkunde garaian sartzen garelarik, euskaldunen eragina nabarmenago agertuko zaigu eta, beteak bete, El Escorial monastegi-gintzan, Joan eta Martin Ganboa bizkaitar eskultorez gainera, hargintza maizuki ugari ibili zen. Hainbeste ziren Escorialen lana egin zuten euskaldunak, frontoi bat ere bazuten jolasorduetarako. Aipatu ditudan autorek hortaz xehetasunik anitz ematen badute ere, nere ustez oraindik ageri asko gelditzen zaigu begiratzeko, bai El Escorial monastegi berean eta baita ere Madrid-eko artxiobotan.

Garai hortan eraiki zituzten euskaldun hargin zutoidun elizak arkitekturez berrituz. Espainiako Penintsulan ez ezik, Méxiko-ko Mérida de Yucatán deritzan hirian ere arkitekturez berritze horren seinaleak utzi arte. Izan ere, Ameriketan, Sevilla-ko katedrala eraiki zuten langileak ibili ziren Santo Domingo-ko katedralgintzan ere, Kantabriako montañesekin batean euskal harginak parte hartuz, beren artean aipatuen Ortuño Bretonen Euskal Herriko semea zela. Méxiko hiri nagusiko katedralaren arkitektoa ordea Claudio de Arciniega izan zen, arabarra edo arabar jatorrikoa bere deiturak adierazten

duenez. Perú aldean zer esanik ere ez. Aski dugu jakitea E. Harth-Terré aipatuari eginarazi zion lana: **Los artifices vascos en el Perú Virreinal** (Lima, 1948). Besteak beste, aski zaigu jakitea Cuzco-ko katedrala Juan Miguel de Beramendi-ren zuzendaritzapean eraiki zela. Baina, bestealde, garai haietako euskaldunek, beren herrian egin zituztena egin zuten Ameriketa aldean Europako pinturari Baltasar Etxabe zumaiaarak hasiera ematean, Méxiko-n eskola sortuz.

Ekintza horiek, inoiz norbituz euskalduneko arte plastikarako ahalmenik ezaren erizita deszertatzen dute.

Beti esan dugu gauzak ez direla bat batean sortzen, eta berriz ere esan beharra dugu ekintza bata bestea bizkortzen duela. XVI. mendean ezagutu zuten euskal organugile eta organularien zabalak. Hargintza maizuki zutoidun elizak eraikitzeak, euskaldunen aitonenemetasunagatik hirak eleiztan hobiratzeko handitu baharrak eta entzumeneko aukera hobeak lortu nahiaren eraginezkoa izan zen. Eta, organulari eta hargin-maisu, akustikaren fenomenoak arduraturik elizaren koroak atzera bota, apaiztegiari elizburuan era egoki bat eman eta bi alderdietako zolaren zutoitariek alturaz berdintzea ekarri zuten.

Euskal organugile eta organularien ospea zabalduz joan zen eta XVIII. mendearen azkenaldira arte, Espainiako katedralik gehienetan aritu ziren. Hortaz azterketa handiak agin badira ere, oraindik lan asko dugu egiteko. 1978.ko irailaren 31an Louis Jambou musikologo frantsesak Portugal-go Coimbra hirian eman zuten hitzaldi batean zionez, XVI. mendetik XVIII.era organu musikan euskaldunek izan zuten eragina Penintsula guzian, eta eragin hura, musika kulturaren hedatzaile bihurtu zela.

Organulari aipagarrienetako bat, XVIII. mendean, Joan Andres Lonbide elgetarra izan zen. Sociedad Bascongada de los Amigos del País erakundearen **Extractos** (1772) direlakoetatik dakigunak, klabete eta biolinerako sei sonata eskaini zizkion erakundeari. Lon-

bidek hemeretzi urterako irabazi zuen Bilboko Done Joanes (Santos Joanes deritzana) elizako organularitza. Geroago Jaun Done Santiagokoa ere bai. 1778an Oviedo-ko katedralera irabazi zuten eta 1768an Madrileko Real Capilla de la Encarnación, garai hartako organulariak Espainian gehien estimatzen zuten plaza. **El arte del organista** ziritzan liburu bat ere idatzi zuten Lonbidek, baina gaur egun ez dakigu ezer, ez bere liburu hortaz, ez eta ere sei sonata haiez. Ezta ere ez dakigu zihur zein urtetan hil zen. Madrilen bertan nonbait, Eta, hara hor non den beste ikergai bat Madriletik irten gabe.

Lonbide organulariari buruzko artikulua bar argitaratu nuen HOJA DEL LUNES honian, 1981eko urtarrilaren 19an. Nere ustez, Madrilen aurkitu ditzake, inon aurkitzekotan, bai Lonbideren **El arte del organista**-ren eskuizkribuak eta baita ere Karlos V.aren gaiko Galbete mediku zagamarraren medikuntzako liburu hura. Eta, ikerketa lan horiek, ene ustez, Madrilen bizi diren euskaltzalek hartu behar lituzke berengan.

Jaun SAN MARTIN

*Los canteros vascos dejaron honda huella en toda la Península a partir del siglo XV. Los mudéjares eran buenos artesanos en la obra de la madera, en el empleo de los estucos y la elaboración de la cerámica, pero los vascos destacaron en la obra de la piedra. Especialidad ésta que la compartieron con los cántabros, astures y gallegos; pero algo significa la imposición de los vascos en la terminología del gremio, tal como nos vino a mostrar Alberto Gárate en el trabajo publicado en el libro homenaje a Odón de Apraiz.*

*Si repasamos las obras de Cean Bermúdez y del Conde de la Viñaza, nos llevaremos muchas sorpresas al respecto, y también observaremos que Carmelo de Etxegaray no llegó a extraer la totalidad de lo que corresponde a artifices vascos. Pero, más allá de las intervenciones del arquitecto elgoibarrés Arandia en*

*Valladolid, de los maestros canteros de la corral, que eran tantos y que cantaban en un frontón para sus juegos, y de Arandia, introduciendo las modificaciones arquitectónicas con la construcción de las iglesias columnares que llevaron su arte al Nuevo Mundo. Los maestros canteros que intervinieron en la construcción de la catedral de Sevilla, de la que también en la de Santo Domingo, con el que figuraba Ortuño de Breñandín; el arquitecto de la catedral de México era Claudio de Arciniega; el maestro Cristóbal de Alcazar, donde vino en la de Mérida de Yucatán, donde el sello de las iglesias columnares. En Cuzco y otros templos peruanos nos encontramos con el trabajo "Los vascos en el Perú Virreinal" (1948). Por parte, los Echave de Zumaya hicieron en aquel tiempo nadie hizo en su país la introducción de la sintonía europea americana.*

*Otro capítulo de la gesta artística de la época cubrieron los organeros y organulari tanta influencia ejercieron en toda la Península (y digo Península porque también se mencionan en Portugal) desde el siglo XVI hasta el XVIII.*

*En su último período, el eleazar, Andrés de Lonbide, quien escribió su tratado en clave y violín dedicados a la Sociedad de los Amigos del País en 1772, hoy desconocemos el paradero, así como el tratado **El arte del organista**. Lonbide fue plaza de Santos Juanes de Bilbao a los diecinueve años; más tarde la de la Real de Nuestro Señor Santiago; en 1778 la plaza de Ovedo, y en 1786 la plaza de Madrid por los organistas de España. Allí transcurrieron sus últimos años, probablemente se extraviaron sus obras, así como los manuscritos sobre música de Cegamaria Galbete, es muy probable que se conserven en alguno de los archivos de los reyes, y su pista deberían seguir los investigadores en la capital.*

## Gorbeiaiko tontorrean gurutze batei da...

Behin bakarrik egon naiz Gorbeian. Egia esan, egon naizela uste dut, ez batezaket zuzen mendu hura Gorbeia zenik. Ni baizeko nago, baina... Duela hamabi bat urteko neguan bizi genuen esperientzi hura. Larunbat eguerdian zuten eta obizko txakitean genbiltzan zenbait lagun Donostiako Alde Zaharrean. Halako batetan, gutarik bati ideietako bonbila izotzi e zitzaion: "Zergatik ez goaz Gorbeia?". Taldeko batek baino gehiagok taberna hura non arraio egongo ote zen pentsatuko zuela segurua nago.

Baina, ez; galdetzaila bene-benetan zihuan eta izen horren mendira itogetza proposatzen ari zitzaigun. Eguraldia serio xamarra genuen. Dena dela, alde batetik, asteburuan aparteko zer egietik ere, eukitzeko, eta, besteik, hogeit urteko adinak berez daman adoretasunik, hiprosamena onartzera bulztatu ninduten. Hiru lagun osatuko genuen "espedizioa".

Adoretasuna aipatu dut baina, beharbada, ausartzia eukiko genuke hitza egokiagorik, txango haren arrazoia adierazteko. Eta ausartzia diot, arratsalde hartan Donostiatik Gorbeiarantz iratzeko, ene ustez, nahiko ausarta izan behar baitzen. Zer dela eta? Begira: mendira joateko ekipa egokirik eta; etxetik kanpo egin behar genuen lo eta ez genekien non; eta, bixtiena, Gorbeia igo ahal izateko nondik joan behar genuen inork ez zekien.

Nolanahi ere, EUTG.ko bi filosofo -Juanito Alkorta eta "Patxus" Arzamendi (zoriarik, motel, "cum laudem" horregaitik) - eta "estear" hau, Araba aldera abiatu ginen, lehendabiziko geldialdia Arrasaten egingo genuelarik. Juanitoren "850", can sartu behar genuen gaua ahalik eta erosoen igarotzeko behar zen ostilamendua. Manta bana, "Pa-

txus"-en zahatua eta erosi berriak nituen bongoak kargatu genituen. Eta martxa.

Firestone-ko mapan aurkitu genuen Gorbeia, inguruetako izenetatik Murua herririkarena aukeratuz jomuga bezala. Muroara iritsi orduko, gauak irenitsiak genien. Elur bustia ari zen. Herriko taberna arraultze prejuritik afaidu ondoren, ugazabak erakutsitako bidetik igotzen hasiz gero, artizan txabola bate topo egingo genuenaren itxaropenean gendela... "eta internat?". Ahaztuta. Beraz, taberna erosi behar izan genituen argizari luze hoietako bi; "Lecce"-renak, agian.

Hura zen irudi fantasmagorikoa! Gorbeiaiko maldatik gora hiru gizaki zihozten, bi kandelatoko argiaz lagundurik, non egon zitekeen ez zekiten txabola baten bila, sekulako elur ekaitza ari zelarik. Baita Gorbeiaiko "atso errenak" ere izutuko ziratekeen osatzen genuen irudi hartaz jabetu izan bila.

"Txabola!" oihukatut zuenaren hunkipena Cristóbal Colon-ekin zihoen mariñelak "Lurral" idierazten bizi behar izan zuenaz bakarrik aldera zitekeela uste dit. Momentuz salbatuta geunden. Eta txabolara zuzendut ginen, arineketan, atzerpe harek emango zigun babesa dastatu nahian. Oxta oxta sartzen ginen hirurok, baina guretzat txabola harek paradisia zirudien.

Neguko gau hotzean bongoek tropikogiroa ipintzen zuten. Non eta Gorbeiaiko artizan txabola batetan... Garai hartan arras entzutesu genuen "The London Living Theatre"-ko antzezlaririk aurreratuak hartuko gintuzketen, txabola barruan bizitzen ari zenak antzerki bihurri hoietako zatirik erakargarriena ematen baitzuten.

Egungentziko lehen argiaz batera txabolatik irten eta gorantz abiatu ginen. Gailurra ge-

nuen helburu. Laster behelainoak hartu gintuen. Ez dakit zenbat ordu eramán zigun goraino itogetzak. Esan dezakedana zera da: tontorrean gogozen eta, behelaino itxiarenatik, ez genuen gurutze ikusten. Inguruan zeuden mendizale batzuek burdinezko erral-doiraino zuzendu gintuzten. Behin mendia garaituz gero, edozein zalek gehien estimatzen duen saria, hots, oinetan duen paisaiaz goratzeko behelaino madarikatu harek ukatu zigun.

Baina ez zen gure zoritxarra hor amaitu. jaisterakoan Juanito galdu egin baitzitzaigun. Eta zenbait ordutan noraezean ibili ondoren, artizan batek ipini e zuten bide ozean.

Plater bana jana bero genuen orduko xede. Baina txanponik ez. Itzultzen txiripaz aurkitutako bihozberako lagun batek -gure egoera eta itxura penagarriaz erurriturik- baskalzura gonbidatu gintuen Lenitz Gatza-gako "Gure Ametsa" ostatuan. Arratsaldeko bostak ziren.

Luzenka xamarra irten zait sarrera. Aurrekoak sarrera izan nahi baitzuten. Baina gogoren adasketatik haizetara salto egitean gutxiñan ezagutzen da non eta nolako izango den ekaiaren euki beharreko ukipuntua. Ekaiaren premiazkotat zu izanez gero, noski. Eta, egia esan, gaurko honen bitartez Gorbeia buruzko beste azalpen batzu egin nahi nituen. Oroitzapenaren begoek, ordea, erabat bestelakoak ezagutaraztera "behariu" naute. Nire gogoren oihonetatik egindako txango -neretz atsegin- bihurtu da gaurko hau. Hurrengokoa gai serioagorik erabiliko dudala agintzen dut.

Josemari VEZ DE MENDIZABAL.

"No siempre está en manos del hombre el

coordinar sus ideas y formar con ellas una obra arreglada, con principio, medio y fin. Yo se expresaba Mariano José de Larra, y yo me dista por excelencia del romanticismo. Yo me principios del siglo pasado, en el que apareció en "Revista Española" de 1833. Y me imagino que también habrá habido muchos más escritores que no se abusan a este fenómeno, muy normal en la historia - de una manera u otra - irrupción de un mensaje al sufrido lector.

Habiendo tomado como base de mi trabajo de hoy una noticia de actualidad sobre los aspectos a considerar en el Monte Gorbea, he comenzado a emborrionar cuartillas y me pregunto por dónde! - el producto final, me gustaría nada tiene que ver con aquella obra que me inspiró.

Y quiero pedir disculpas por haber escrito que alguien opina que me he aburrido de realizar la descripción de un monte tan montañera personal, que tuvo lugar hace unos años. Y prometo que en la próxima entrega trataré del tema que, en principio, me inspiró para hoy.

Pero es que sucede que uno no puede estar tan tagolado ni entre los medianos montañeros de este País, y basta que hoy tuviera un momento de hacer llegar al público una de las "has" de mi registro particular, para que me aprovechara... La historia de una expedición a Gorbea, junto a Juanito Alkorta y "Patxus" Arzamendi, planeada un sábado de mediados de chiquiteo por el País Vasco, nostiaria, y llevada a efecto al día siguiente, luego de pernoctar en una chabola de montaña en Murua, sin más acompañamiento que una bola de vino y unos bongos. Cosa de veinte años! - de los veinte años.